

2. Zeregina. DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

Tarea 2. Plan de mejora de las competencias lectoras en la ESO.

Marrazki artistikorako ez dago arau finkorik. Marrazkia arretaz behatu eta saiatu marrazkia hasteko baliagarria den forma sinple batekin (triangelua, laukia, obaltoa...). Marrazkiaren hasieran ez da inoiz indarrez markatzen. Ikus dezagun nola hasi...

Gorputzarentzako triangelu zuzena egin.

Isatsarentzako beste triangelu zuzen txikiagoa irudika ezazu.


Gandorarentzako kurba bat egin kontornoa eraikiz. Buruarentzako forma biribila egin.

Dorsalen zonalderako triangeluak gehitu (ez ahaztu zenbatzea).

Hanken barila eta artikulazioak irudikatu. Oinei dagozkien triangeluak kokatu tarteko espazioari arreta berezia jarri.

Kontornoko lerroak berriro birpasatu marrazkiari osotasuna emateko. Zonalde disdiratsuak eta itzalak bereizi.


Proiektaturiko itzala eta paisaia egin.



DINOSAUROAK

Tyrannosaurus

Orain arte eginiko
ariketen aurkakoa egin
ezazu, hau da, irudia
sinplifikatu kopiaketa
hasten deneko
urratsetara.



Testua. TEXTO.

GAIA/ASIGNATURA	HEZKUNTZA PLASTIKOA ETA IRUDIBIDEZKOA
MAILA/CURSO	4.DBH
IKASTETXEA/CENTRO	Alaitz BHI
DEPARTAMENTUA/ DEPARTAMENTO	PLASTIKA
IRAKASLEA/PROFESOR / A	Koro Lizarreta
JATORRIA/FUENTE	
EGILEA/AUTOR	Du Bosque, Doug
IZENBURUA/ TÍTULO	Dinosaurios. Dibujar paso a paso
ARGITALETXEA EDITORIAL	El Evergeen
URTEA/AÑO	2000
ORRIALDEA(K) PÁGINA	
ISBN	3822865680
Irakasleak izuli du euskerara.	
TESTU-MOTA/TIPOLOGÍA	
OINARRIA/ SOPORTE	Testu inprimatua
FORMATOA/ FORMATO	Jarraia+ irudiak= mistoa
MOTA/TIPO	Jarrabidea
ERABILERA/USO	Hezkuntzakoa
ESTRATEGIAK/ESTRATEGIAS DE LECTURA	
IRAKURRI BAINO LEHEN/ ANTES DE LA LECTURA	<u>ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK</u>
	Lehenbizi, marrazkia arretaz behatu. Marrazkia hasteko, baliagarria den forma simple bat erabili. Hau da, marrazteko beharrezkoa den behaketan eta formen sinplifikazioan arreta jarri behar duzu.
	Testuak marrazkia egiteko aholkua ematen digu: “marrazkiaren hasieran ez da inoiz indarrez markatzen”. Eta paragrafoko azken esaldiarekin emango zaizkigun jarraibideetan murgiltzen gara “ikus dezagun nola hasi...”
	Testua ozenki irakurriko da, jarraibideen ildoan zentratzeko.
	Arloko terminologia erabiliko da hemendik aurrera, eta honela sailka genezake:

	ZER	NOLA	ZEREKIN
	gorputza	sinplifikatu	triangelu zuzen handia
	isatsa	sinplifikatu	triangelu zuzen txikia
	gandorra	marraztu	kontornorako kurba
	burua	sinplifikatu	forma eliptikoa
	dortsalak	kopiatu	triangeluak (zenbatuak)
	hankak eta artikulazioak	sinplifikatu	makilak eta borobiltxoak
	oinak	sinplifikatu	triangelutxoak (tarteko espazioa behatu)
	irudian	kontorno lerroa birpasatu	
	irudian	zonalde disdiratsuak eta itzalak bereizi	
	irudian	proiektaturiko itzala eta paisaia egin	
IRAKURLEAREN ESTRATEGIAK			
Ikasleak dokumentua hartu bezain pronto, gainbegirada batez, dokumentuak hiru zati dituela antzeman beharko du, alegia, izenburuaz, testuaz eta irudiz osatua dagoela.			
IRAKURRI BITARTEAN /DURANTE LA LECTURA	<p>Iragarpenak egin: lehen ataleko lehen esaldia irakurri ondoren “marrazki artistikorako ez dago arau finkorik” testu edukiari buruzko iragarpenak egin.</p> <p>Ondoren, informazioa jasotzeko, dokumentu osoaren bakarkako irakurketa egingo du ikasleak, ZER galderari erantzuten dioten animalien atalei buruzko terminologia kolore batez azpimarratzen joaten den bitartean hiru ataletan.</p> <p>Beste kolore batez, NOLA eta ZEREKIN galderari erantzuten dien formen izenak eta prozesuaren jarraibideak azpimarratuko ditu.</p>		
IRAKURRI ONDOREN/ DESPUÉS DE LA LECTURA	<p>Gero, lan ildoan ongi ulertuta, marrazte ariketarekin hasiko da, aldiro irudiak berrikusiz konparaketak egiteko.</p> <p>Atala osoa irakurri eta atzetik aurrerako lana egin beharko du, berak eskemak proposatuz laupabost marrazkietan.</p>		
JARDUERAK/PROCESOS LECTORES			
Informazioa bilatzea edo eskuratzea RECUPERAR - OBTENER INFORMACIÓN	1.	<p>Nolako formaz irudikatuko zenuke dinosauro honen gozputza?</p> <ul style="list-style-type: none"> - Laukiekin. - Triangeluekin. - Obaloekin. - Pentagonoekin. 	
	Erantzuna Respuesta	<i>Triangeluekin</i>	

	2.	Marrazkiaren hasieran lerroak... a. ...indarrez markatzen dira. b. ...birpasatu egiten dira. c. ...ez dira indarrez markatzen. d. ...zuzenean tintaz egiten dira.										
	Erantzuna Respuesta	<i>c. ... ez dira indarrez markatzen.</i>										
Ulermen orokorra COMPRENSIÓN GLOBAL	1.	Zein da testuaren helburua?										
	Erantzuna Respuesta	<i>Ikasleak marrazten ikastea forma sinpleak erabiliz</i>										
	2.	Zein da “tyrannosaurus” izeneko atalaren helburua? a. Dinosaurioaren marrazkia bere horretan kopiatzea, dagoen-dagoenean b. Dinosaurioa bat marraztea hemen azaldutako forma sinpleak erabiliz . c. Dinosaurio horren marrazketarako formen sinplifikatze urratsak egitea. d. Dinosaurio hori marrazteko pausuak adieraziz.										
	Erantzuna Respuesta	<i>e. Dinosaurio horren marrazketarako formen sinplifikatze urratsak egitea.</i>										
Interpretazioa INTERPRETACIÓN INFERENCIAS	1.	Taula bete:										
		<table border="1" style="width: 100%; text-align: center;"> <tr> <td>ZER</td> <td>NOLA</td> </tr> <tr> <td></td> <td>Triangelu zuzen handia</td> </tr> <tr> <td></td> <td>Triangelu zuzen txikia</td> </tr> <tr> <td>Burua</td> <td></td> </tr> <tr> <td>Hankak eta artikulazioak</td> <td></td> </tr> </table>	ZER	NOLA		Triangelu zuzen handia		Triangelu zuzen txikia	Burua		Hankak eta artikulazioak	
		ZER	NOLA									
			Triangelu zuzen handia									
			Triangelu zuzen txikia									
Burua												
Hankak eta artikulazioak												
Erantzuna Respuesta	<table border="1" style="width: 100%; text-align: center;"> <tr> <td><i>ZER</i></td> <td><i>NOLA</i></td> </tr> <tr> <td>Gorputza</td> <td><i>Triangelu zuzen handia</i></td> </tr> <tr> <td>Isatsa</td> <td><i>Triangelu zuzen txikia</i></td> </tr> <tr> <td>Burua</td> <td>Trapezio forma</td> </tr> <tr> <td>Hankak eta artikulazioak</td> <td>Makilak eta borobiltxoak</td> </tr> </table>	<i>ZER</i>	<i>NOLA</i>	Gorputza	<i>Triangelu zuzen handia</i>	Isatsa	<i>Triangelu zuzen txikia</i>	Burua	Trapezio forma	Hankak eta artikulazioak	Makilak eta borobiltxoak	
	<i>ZER</i>	<i>NOLA</i>										
	Gorputza	<i>Triangelu zuzen handia</i>										
	Isatsa	<i>Triangelu zuzen txikia</i>										
Burua	Trapezio forma											
Hankak eta artikulazioak	Makilak eta borobiltxoak											
2.	Nola lortzen duzu argiluna?											
Erantzuna Respuesta	<i>Zonalde disdiratsuak eta itzalak bereiziz.</i>											
Edukiaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN CONTENIDO	1.	Dokumentu honetan adierazten denaren arabera, marrazketarako garrantzitsua da kontaketa, neurketa eta ordena? Arrazoitu zure erantzuna.										
	Erantzuna Respuesta	<i>Erantzun librea.</i>										
	2.	Marrazki baten kopiaketan deskribatzen diren urratsak banan banan jarraitzea <u>ezinbestekoa</u> dela uste duzu? Zergatik?										

	Erantzuna Respuesta	<i>Bai. Marrazteko, forma geometriko sinplifikatuak erabiltzea lagungarria izan daiteke. Ez. Sinplifikaziorik gabe, zuzenean forma detailatuen kopiaketa ere egin daiteke.</i>
Formaren gaineko hausnarketa VALORACIÓN - REFLEXIÓN FORMA	1.	Dokumentua ulertzeko zer da ezinbestekoa? Irudiak edo Testua? Arrazoitu zure erantzuna.
	Erantzuna Respuesta	<i>Irudiak ezinbestekoak dira.</i>
	2.	Zer irudi mota erabili dira dokumentuan? a) Eskema geometrikoak eta marrazki figuratiboak. b) Taula eta jarraibideak. c) Eskema geometriko eta irudi abstraktuak. d) Jarraibideak eta eskema figuratiboak.
	Erantzuna Respuesta	<i>a) Eskema geometrikoak eta marrazki figuratiboak.</i>
PRAKTIKAN JARRI/PUESTA EN PRÁCTICA - OHARRAKOBSERVACIONES		